

**VII. ATALA
BESTE ZENBAIT****Bilboko Merkatariza, Industria, Zerbitzu eta Itsasketa Ganbera Ofiziala****Laguntzen deialdiaren laburpena modalitate arrunta Xpande Digital Programa 2023. BDNS (Identif.): 671149.**

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/671149>)

Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberak ezagutzera ematen du nazioarteko marketin digitaleko ekintza-planak garatzeko Xpande Digital laguntzen deialdi publikoa. Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatzen ditu plan horiek.

Lehena. — Onuradunak

Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberaren lurralde-mugapeko ETEak eta autonomoak, EJZ erroldan alta hartuta daudenak.

Bigarrena. — Xedea

Nazioarteko marketin digitaleko ekintza-planak garatzeko laguntzak ematea, Xpande Digital programaren esparruan. Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) finantzatu du dirulaguntza horien %50a.

Hirugarrena. — Deialdia

Enpresek deialdiaren testu osoa eskura dezakete Bilboko Ganberaren egoitza elektronikoa: <https://sede.camara.es/sede/bilbao>. Baita ere kontsultatu dezakete <https://www.camarabilbao.com/autonomos-empresas/internacionalizacion/programa-xpande-digital/> webgunean.

Esteka horretan deskargatu ahal izango dituzte deialdia bera eta eskaera egiteko behar den dokumentazio guztia.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Deialdi honen kargura emango diren laguntza ekonomikoak 36.000 eurokoak izango dira. Enpresa bakoitzak gehienez 4.000 euroko aurrekontu hautagarria izango du, zeina enpresa onuradunak berak finantzatu beharko baitu aldez aurretik. EGEFek aurrekontu horren %50a finantzatu du, hortaz, enpresa bakoitzeko gehieneko laguntza 2.000 eurokoa izango da.

Laguntza hauek Xpande Digital Programaren barruan sartzen dira, zeinak 69.120 euroko gehienezko exekuzio-aurrekontua baitu «Espainiako Eskualde Anitzeko 2014-2020 Programa Operatiboaren» esparruan, eta zeinak bere baitan hartzen baititu doako aholkularitza- eta jarraipen-zerbitzuak.

Bosgarrena. — Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea goizeko 9:00etan irekiko da, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun baliodun igarotzen direnean, eta zabalik egongo da 2023ko martxoaren 10eko eguerdiko 14:00ak arte. Hala ere, baliteke epe hori laburtzea aurrekontua agortzen bada.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 18an. — Jarduneko Idazkari Nagusia, Mikel Arieta-arauna-beña Bustinza